

Liburu bikain batetik film eder bat. Nim-en uhartea

Iñaki ZUBELDIA

Wendy Orr idazle australiarrek idatzi zuen *Nimen uhartea* izeneko liburua 2000. urtean. Liburu bikaina da, berezia, besteetatik desberdina, erabiltzen duen gaiagatik.

Nim hamaika urteko neskatila Pazifikoko uharte txiki bakarti batean bizi da bere aitarekin. Ama itsasoko ikerketa batean galdu zuen, Troppo turismo agentziako itsasontzi handi batek balea bat aztoratu ondoren. Ordutik gorroto dute turismo agentzia diru-gose eta eskrupulorik gabeko hori. Jack, aitak, eta neskek munduarekin duten lotura bakarra satelite bidezko Interneta da.

Neskatilaren lagun handiak dira Fredy, itsas iguana, hainbat estuasunetatik ateratzen lagunduko diona; Selkie, itsas lehoia, eta Chica, dortoka handia, neskatilaren ibilgailu izango direnak itsasoko txangoetan; eta, Galileo, pelikanoa, mezuak urrutira bidaltzeko eta une larrietan postari eta salbatzaile papera ere egingo duena.

Aita askotan itsasora ateratzen da bere ikerketak egitera, bereriki planktonari eta mikro-planktonari buruzko ikerketak burutzen ari da eta mundu osoan ospe handiko ikerlaria da. Baina mikro-planktonaz gain, itsasoarekin lotutako edozein gai eta eremutan jakintsua da eta kontsultak jasotzen ditu mundu guztitik bere helbide elektronikoan. Berak gustura erantzuten ditu, dakiena besteekin partekatzeak atsegin handia ematen baitio. Horrela, Alex Rover izeneko idazle ospetsu baten mezuak ere jasotzen hasten da bere korreogan. Alex Rover-ek galdera asko egiten dizkio, itsasoari buruzko hurrengo liburuan ez baitu akatsik egin nahi eta Jack-en (Nimen aitaren) iritziak

egia benetakotzat dauzka Alexek. Ez dago esan beharrik Jack Alex Roverren liburuen mireslea dela eta uhartean, beste askoren artean, haren liburu guztiak dauzkala. Nim ere Alex Roverren istorioen maitale bihurtzen da, hain baitira handiak eta harrigarriak kontatzen dituen abenturak eta balentriak. Nimek Alex Rover miresten du, eta pentsatzen du munduko eskalatzailerik onena dela, abenturazalerik ausartena eta egoerarik gogorrenaren aurrean ere kikiltzen ez den horietakoa dela uste du. Aita itsasoan denean, Nimek erantzuten ditu Alex Roverren mezuak eta bien artean halako elkar mireste eta elkar ulertze goxo bat sortu da.

Nimek liburuen bidez eta Interneteko mezuen bidez hautsiko du uharteko bakardadea. Orduak eta orduak emango ditu irakurtzen Alex Roverren liburuak eta miresten haren super-heroi ausartak. Fredy itsas iguanak, Selkie itsas lehoiak, Chica dortokak eta Galileo pelikanoak ere arinduko dute haren bakardadea eta nahiko eginkizun eta buruhauste jarriko diote eguneroko asperduratik ateratzeko. Aita itsasoan denean, Nim ez da bakarrik eta aspertuta sentitzen. Eta aita etortzen denean, berriz, Nimek galdera ugari egiten dizkio itsas bizardari buruz eta bere ikerketei buruz. Aita maitagarria da Nimekin eta biak elkarrekin oso ondo konpontzen dira.

Baina, egun batez, aita itsasoan dela, Troppo agentziako itsasontzi handia turistaz beteta azaltzen da Nimen uharteko badian. Turistek uhartea inbaditzen dute eta Nim beldur da ordura arte paradisu bakarti izan den uhartea ez ote den hotelez eta turistez beteko. Eta orduan akabo aitak eta berak zeukaten bizitza lasaia, uhartearen ekosistema berezia eta hango bakea eta lasaitasuna. Horregatik, Nim ezkutatu egiten da, uhartean inor ez dela bizi pentsa dezaten, eta Fredy itsas iguana lagun hartzen du, turista haiek denak handik uxatzeko. Fredyk deituta menditik ehundaka itsas iguana jaisten dira beheko hondartzara eta turisten aurpegietara eta bularretara salto egiten dute, hauek herensugeen eraso dela sines dezaten. Deabruak harrapatuta bezala itsasontzi handira ihes egiten dute korrika eta kapitainari eskatzen alde egiteko handik, herensugez eta pizti gaiztoz josita dagoela uharte hura eta. Bitartean, Nimek uhartearen goi aldean dagoen sumendiko kraterrean sua egiten du eta denek pentsatu dute sumendia berriro aktibatu egin dela. Orduan kapitainak lehenbailehen ontziratzeke agindua ematen du eta ihes egiten dute uharte madarikatu hartatik. Horixe nahi zuen Nimek.

Troppo agentziako inbasoreak uxatu zituen neskak, baina eguna aurrera joan ahala, kezka ilun batek habia egin zuen haren bihotz xaloan. Arratsaldea aurrera zihoan eta aita ez zen ageri. Hasieran pentsatu zuen ikerketa uste baino gehiago luzatu zitzaiola eta bere burua lasaiatzen ahalegindu zen. Eta halako batean, Galileo pelikanoa ikusi zuen beregana hurbiltzen, mokoan mezu bat zekarrela eta ezta-rritik hots guturalak ateraz. Arrain bat eman zion Galileori, ekarritako mezuagatik esker ona azalduz, eta mezua irakurri zuen. Honela zioen:

Nim maitea:

Ekaitza datorrela iragartzen dute hegaztiak.

Zoaz larrialdietako leizezulora.

Hartu telefonoa, ordenagailua, eguzki panela, bateria kargatzailea eta ekipo zientifikoaren gainerakoa eta eramateko denbora duzun beste edozer, baina zu zara axola duen bakarra. Ekaitza hurbiltzen ikusi bezain pronto, utzi dena eta babes zaitetz azkar.

Ekaitzari ondo egiten badiot aurre, gaur gauean edo bihar lehen orduan izango naiz etxean.

Maite zaitut

Jack

Haize-erauntsi bortitzak itsasoa eta uhartea astindu zituen. Nimek ezin izan zituen leihoak itxita mantendu. Ekaitz zakarrak behin eta berriz irekitzen zizkion eta ahal izan zuen moduan, mahaiak jarritz, altzariak pilatuz eta atalak leku estrategikoetan kokatuz, lortu zuen etxean txikizio handiegirik ez gertatzea, paperak eta liburuak lurrean barreiatuta geratu baziren ere.

Etxea seguru samar ikusitakoan, larrialdietako leizezuloan babestu zen Fredy itsas iguanarekin eta Selkie itsas lehoiarekin. Haiek babesa eta beroa ematen zioten.

Jack-ek bere ontzia matxuratuta zeukan, baina bere burua mastari lotuta jarri zuen haizeak uretara bota ez zezan. Une gogorrek pasatu behar izan zituen itsaso haserrearen danbatekoen mende. Baina esaerak dioen bezala "ekaitzaren ondoan, zero urdina" etorri zen eta masta konpondu ahal izan zuen. Galileok ere konpainia egin zion itsasoa baretutakoan, eta Jackek, bere ontzia koponduta, etxeranzko bidea hartu zuen.

Ezusteko handia hartu zuen Nim emakume gazte batekin topatu zuelako eta ezusteko hau areagotu egin zen, emakume hura Alex

Rover zela jakin zuenean. Beti uste izan zuten Alex Rover gizonezko abenturazale ausart horietako bat zela, baina jakin zuten Alex Rover Alexandra Rover emakume herabe, beldurti eta fantasiaz beterikoa zela. Haren bidaiak eta balentriak bere irudimenaren fruitu zirela eta ez bere esperientzia harrigarrien ondorio.

Historia indartsua eta hunkigarria da benetan. Itsasoko bizitza, fauna eta flora oso ondo ezagutzen ditu Wendy Orr liburuaeren egileak. Liburua harrigarria da, tentsioa eta emozioa hasieratik bukaeraraino goi-goian mantentzen dizkizuna. Eta ekologiaz, ekosistemaz, itsasoko animaliez, arrainez, hegaztiez eta planktonaz ematen dizkizun ezagutzak zeharka sartuta daude, gertakizunen eta abenturen artean ezkutatuta. Horregatik da interesgarria liburua, itsasoko bizitzari buruzko hainbeste erreferentzia eta datu eman arren, inoiz ez duzulako sentitzen ikasgai baten aurrean zaudenik. Gauza askoren berri ematen dizu bizitzako abentura eta gorabehera korapilatsuak azaltzeko eta ulertzeko.

Filma ere ederra da eta hunkigarria, baina ez da liburua bezain biribila. Hainbat gauza pixka bat nahastuta ageri dira filmean. Egia da oso zaila dela liburu honetako gertakizun, sentimendu, abentura, estuasun, poz, atsekabe eta deskubrimendu guztiak 90 minutuko film batean ematea. Hala ere, uste dut merezi duela filma ikustea; baina, beti, liburua irakurri eta liburuaz gozatu ondoren.

Wendy Orr

Wendy Orr da *Nimen uhartea* liburuaeren egilea. Emakume hau Edmonton-en jaio zen, Kanadan, 1953. urtean. Umetan Frantziara joan zen bizitzera, bere aitaren lana zela medio. Handik berriro Kanadara, EEBBetara eta Ingalaterrara mugitu zen. Galesen Tom izeneko australiar batekin ezkondu zen eta graduatu bezain laster Australiara joan ziren bizitzera. Han bizi da gaur egun eta James eta Susan bi seme-alaben ama da. Idazle nahiko oparoa da, hogeita lau obra idatzi baititu umeentzat eta gazteentzat bereziki. Horien artean daude *Nimen uhartea*, *Nim itsasoan* eta *Noeren ontzi bat parkean*, hirurak euskaratuta daudenak Ibaizabal argitaletxean. Horiez gain, baditu beste hainbat oraindik euskaratu gabe daudenak: *Jessica Joan*, *Ara-*

bella, Micki y Daniel: Pegasus y Ooloomooloo, Micki y Daniel: Un tren a la ciudad, Paradise Place, Paradise Gold...

Baina hemen ez dut esan gabe utzi nahi Wendy Orr-ek izan zuen ezusteko goxoa euskaldunekin, zehazki Azkoitiko Xabier Munibe ikastolakoekin. Hemengo ikasleek *Nimen uhartea* irakurri zuten eta liburu horri buruzko azterketa sakona eta iruzkin sorta bat bidali zioten e-mailez Wendy Orr idazleari. Ingelesa ematen zuen andereñoaren laguntza izan zuten horretarako eta hainbat iruzkin erdaraz ere bidali zioten. Idazlearentzat Euskal Herritik halako mezu bat iristea eta bere liburua euskaraz irakurri zutela, hizkuntza minorizatu batean, eta asko gustatu zitzaizela jakitea, itsasotik botila batean mezua jasotzea bezalako zerbait izan omen zen. Antipodetatik halako mezurik jasoko zuenik ez zuen espero. Liburuaren balorazioa, iruzkinak, galderak, kritikak... asko estimatu zituen Wendy Orr-ek eta laster erantzun zien, eskertuz, eta egin zioten balorazioa aintzat hartuz. Bere beste liburu bat ere bidali zuen ikastetxera, ingelesez, eta dedikatoria berezi bat idatzita, ikasleen artean zozketa zezaten. Liburu hura jaso zuen neskak oraindik goata artean gordeta omen dauka altxor hura.

Ikasleentzat izugarria izan zen esperientzia. Beraiek Australiaraino bidalitako mezuak erantzuna merezi izan zuen, miresten zuten idazle baten erantzun hunkitua. Azkoitia Australiarekin lotu zuen mai-tasun eta miresmen korrante bero gozo batek eta ikasle horiek bizi osoan gogoan izango dute Australiako emakume idazlea, baina Wendy Orr-ek ere ez ditu berehala ahaztuko Euskal Herriko bere irakurle saiatu eta esker onekoak.

Izan ere, geroago, beste bi edo hiru mezu bidali zituen Wendy Orr-ek Azkoitiko Xabier Munibe ikastetxera jakinaraziz *Nim itsasoan* izeneko bigarren liburu bat ere idatzi zuela eta bere lehen liburuaren (*Nimen uhartea*) film bat egiten ari zirela.

Film hori Donostiako karteleran egon zen eta espero dut orain bideoan edo DVD formatuan ikusi ahal izango duela interesa duenak.